

Herri-ekimenen erronkak feminismotik indartzen

Nerea Zubillaga-Herran
UPV/EHUko doktoregia

Artikulu honetan, askapenaren eta eraldaketa sozialaren alde lanean dabiltzan herri-ekimenen erronkak feminismoetatik nola indartu daitezkeen aztertzen da, identifikatutako erronketako batzuetan arreta berezia jarriz. Gizarte Langintzak, eta batik bat, Gizarte Langintza Komunitarioak, eraldaketaren bidean, ezinbestean kontuan hartu behar baititu helburu berarekin jada lanean ari diren eragileak. Ikerketen errebisioan, errepikatzen diren gabezia komun batzuk identifikatu dira eta, praktika zein teoria feministen bidez, erantzun posible bat eman zaie. Artikuluan, feminismoak herri-ekimenei egin diezaiekeen eta egiten dien ekarpenaren inguruan hausnartzeaz gain, identifikatutako gainerako gabeziak ere aipatzen dira. Hala ere, bereziki, ekimenen barnean egituratzen diren botere-harremani eta saretzearen beharraren gabeziari interseksionalitatearen planteamenduaren bidez nola erantzun dakiekeen sakonduko da. Lan honetan, hausnarketa teorikoa egiteko, metodologia kualitatiboaren barnean gaian adituak diren autore eta elkarteek sortutako dokumentazioaren errebisio bibliografikoa eta behaketa parte-hartzailea burutu dira.

GAKO-HITZAK: Herri-ekimenak · Feminismoa · Gizarte Langintza Komunitarioa · Interseksionalitatea · Emantzipazioa.

Strengthening from feminism the challenges of the social movements

This article studies how feminism can help to strength the challenges of the social movements that work in favour of the liberation of people and the social change in the Basque Country. It is necessary that the social work, and in special the community social work, takes in to account the agents that already work with the same purpose, the change. In the bibliographical revision, some common needs have been identified and possible answers have been suggested from the viewpoint of the theory of feminism. The article addresses the relations of power that are given in these movements and the relevance of forming networks, emphasizing on how to give a possible answer to this from the feminist idea of intersectionality. For the theoretical reflection of this work, both the bibliographic review of the documentation created by experts in the field, as well as the participatory observation technique, have been carried out.

KEY WORDS: Social initiative · Feminism · Community social work · Interseccionality · Emancipation.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.111.2019.1>

Jasotze data: 2019-02-26

Onartze data: 2019-04-01

Sarrera: herri-ekimenak eta haien erronkak¹

Gizarte Langintza Komunitarioaren inguruan lanean gabiltzanontzat, lurralde jakin batean kokatzen diren gizarte-mugimenduak, elkarteak edo antolatuta dauden eta egunerokotasunean komunitatean (auzoan, herrian...) parte-hartze aktiboa duten herritarrak ezinbestekoak dira. Hori dela-eta, horiek indartsu egotea komenigarria izaten da lan komunitario integral bat egiteko, eta horretarako, maiz, elkarte, ekimen, mugimendu edo artikulatutako edozein taldek bere buruaren inguruko hausnarketa egin behar izaten du.

Artikulu honetan, beraz, gizarte-langile komunitarioaren jardute profesionalerako gako garrantzitsuak diren gizarte-ekimenen inguruko hausnarketa egingo da. Horrela, pertsonen askapenaren² eta gizarte-eraldaketaren bidean lanean diharduten herri-ekimenen inguruan egin diren lanak eta behatutakoak kontuan izanda errepikatzen diren erronkak identifikatu dira. Erronka nagusietan arreta berezia jarri eta batzuk hautatuta, feminismoak eskaintzen dituen edo feminismotik datozen hainbat teoria zein praktikaren bidez erantzun posible bat eman gura izan zaie.

Aipatutako hutsuneei feminismoaren ekarpenekin erantzutea ez da kasualitatea. Feminismoa eta feministak gizartean eragiten urteak dabilzan arren, azken urteetan, testuinguruak horrela eskatzen duelako agian, susperraldia bizi izan dute. Mota eta modu ezberdinetako feminismoak ezagutu dira, baina mugimenduaren hazkundera ezin da ukatu. Erreminta garrantzitsu bihurtu da eta beste borroka-esparru batzuk heltzen ez diren bezala, militante feministetatik haratago heldu da. Bestelako gizarte-mugimenduek feminismoa txertatu dute beren borroketan eta borroka horiek aurrera eramateko balioetan, eta, egun, eremu ezberdinetan hedatzen jarraitzen du. Gaur egun, eta are gehiago, azken martxoaren zortzitik aitzina, feminismoa da mugimenduetan handienetakoa eta, planteamendu eta praktikak ezagututa, osatuenetakoa ere. Justizia soziala eta pertsonen askapena modu integral eta osatuenean lantzen ditu, eta hori dela-eta erabili da aurrez aipatutako herri-ekimenen erronkei erantzun posible bat aurkitzeko bidean.

Lan honen bidez, aipatu bezala, Gizarte Langintza Komunitarioaren esku-hartzea indartu gura da, elkarlanean beharrezkoak diren herri-ekimenen hausnarketa sustatuz. Autorearen ikuspuntua bikoitza da kasu honetan, gizarte-langilea izateaz gain herri-ekimenetako kidea izatean, ikuspegi zabalagoarekin lan egin da, Harawayik (1991) aipatzen duen «ezagutza kokatua»rekin, alegia. Donna Harawayk dioenez, erabiltzen den metodoa edozein izanda ere, ez dago ezagutzarik egileak duen testuinguru eta subjektibitatekin banatua. Berak ikerketa objektuaren inguruan nondik hitz egingo den azaleratuz sortzea proposatzen du, hau da, zer ikuspuntutatik egiten den esplizitatzea. Beraz, agerian geratzen da horrela, norbere posizionamendu politikoa. Horretaz gain, metodologia kualitatiboa erabili da. Hortaz, metodologia kuantitatiboak dituen indarguneak ez daude presente, baina, hori ahulezia bat izan

1. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV-EHUko bekaduna, Eusko Jaurlaritzaren doktoratu aurreko programako laguntzarekin babestua.

2. Askapena edo emantzipazioa: «Emantzipazioa egunerokotasunean zapalkuntzaren biktimak gutxiagotzen eta menpean hartzen dituzten praktika pertsonalak eta kolektiboak eraldatzeko prozesua da» (Dañobeitia eta Martínez, 2015: 59).

badaiteke ere, helburua ez da fenomenoa deskribatzea, baizik eta haratago joatea. Horrela, diskurtsoaren bidez, horien analisi eta interpretazio subjektiboa egin da (Rubio eta Varas, 2004: 225-258). Komunitatea bera eta komunitarioa den esparrua osatzen duten eragileak ez dira modu isolatuan aztertzen, dauden elementu guztiak eta haien arteko elkarrekintza eta harremana aztertzen dira, hots, estruktura guztia. Teknikei erreparatuta, bi erabiliko dira: bigarren mailako iturrien errebisioa, hau da, gaian adituak diren Euskal Herriko autore eta elkarteek egindako ikerketen errebisioa, eta, bestetik, behaketa parte-hartzailea, herri-ekimenen partaide izanik, eragile horien baitan burutua.

Egiturari dagokionez, lehenik eta behin, herri-ekimenen nondik norakoak aztertuko dira, hau da, zer diren eta zer ezaugarri dituzten. Ondorengo atalean, herri-ekimeneke egun dituzten erronken inguruan hitz egingo da, hurrengoan, horiei feminismoak egiten dizkien ekarpenak ezagutu ahal izateko. Hori ezagutu eta gero, gehiago sakondu gura izan den interseksionalitatearen inguruko atala aurkeztuko da, eta, bukatzeko, azken hausnarketeki bide emango zaie, ondorio modura.

1. Herri-ekimenen nondik norakoak

Dominanteak diren eta gure gizartearen antolaketan zeharkakotasunez dauden ideologia eta ardatzen³ kontra borrokatzen dute hurrengo lerroetan aztertuko diren herri-ekimeneke, nahiz eta tipologia eta arrazoi ezberdinak direla medio sortuak izan.

Horiek aztertu eta ekarpenak egitea da lan honen asmoa; izan ere, errealitatea irauli eta gizarte justuago baten bila bagabiltza, komunitateak antolatua behar du, finean, hori baita gizartea zuzentzen duten logika eta ideologia dominanteei aurre egiteko modu bakarra, injustizia horien aurka kolektiboki lan egitea, aldarrikatzea eta alternatibak sortzea. Zesar Martinezek honakoa aipatzen du horren inguruan:

Antolatuta dagoen herriak bere bilakaera egiteko gaitasuna du, bere etorkizuna gidatzeko ahalmena. Herritarren autoantolakuntza funtsezkoa dugu gure historien subjektu izateko. Gaur egun, aldiz, merkatu kapitalistak eta administrazio publikoek euren logika merkantilistak eta normatibistak ezartzen dituzte eta ondorioz, gure bizimoduak gero eta merkantilizatuago eta normatibizatuago daude. Herritarren autoantolakuntzak, auzolanak eta herrigintzak, bere logika propioetan autozentratuz, beste modu batez produzitu daiteke (Martinez, 2014: 22-23).

Hainbat autore aztertu dira definizio bat sortzeko asmotan, baina guztiak bat datoz definizio orokor bat sortzeko zailtasunarekin (Apalategi, 1999: 21), herri-ekimeneke praktikaren inertziak aldatzen direlako. Zailtasunak zailtasun, hainbat dira definizio ezberdinetan aipatzen direnak. Batetik, ez dira kolektibo edo erakunde batzuk bezain itxiak, beraz, malgua eta irekia izan behar du definizioak. Bestetik, hegemonia ideologiko, dominazio eta botereen aurka erresistentzia eta borroka egiten dutela aipatzen da, gizarte-eraldaketa askatzaile baterako estrategiak indartzen dituzten subjektu bezala ulertuz (Martinez eta Casado, 2013). Azkenik, autoantolakuntzaz eta artikulazioaz ere hitz egiten da (Joxemi Zumalabe, 2014).

3. Mendebaldeko gizarteetan, eta ondorioz, baita Euskal Herrian ere, kapitalismoa, heteropatriarkatua eta inperialismo edo kolonialismoa gizartearen antolamenduan zeharkakotasunez dauden eta botere-egoera asimetrikoak sortzen dituzten ardatz ideologiko bezala ulertzen dira.

Aurrekoa ikusita, herri-ekimenak botere politikoa eliteen eskuetan egon ez dadin eta historikoki pribilegiatuak izan ez diren sektore edo kolektiboen ahalduzaren alde lan egiten duten agenteak dira. Jada aipatu bezala, pertsonen askapena bultzatzen dute botere politikoa lortuz eta elite dominanteek hartzen dituzten erabakietan eragiten saiatuz. Hori horrela izanik, garrantzitsua da definitzen saiatu eta gero, nola eta zergatik sortzen diren ezagutzea.

Herri-ekimenen sortze-arrazoi nagusia zera da: aurrez aipatu diren ideologia hegemoniko edo ardatz politikoek sortzen dituzten botere-asimetriei erantzun bat ematea, eta, horren eraginez, aukera-ezberdintasunean geratzen diren kolektiboek askapena bultzatzea.

Hori horrela, herritarren mugimenduak, elkarguneak eta abar sortzen dira, finean herri-ekimenak direnak, eta boterearen erabakiguneetan egon ezin direnez, beste metodo eta erreminta batzuk erabiltzen dituzte erabakietan eta testuinguruan eragin ahal izateko edo aldarrikapenak egiteko, botere politikoa berreskuratzeko, betiere ekintza kolektiboaren bitartez.

Ezin da testuinguruan eragin, edo oso zaila izango litzateke, norbanako bezala eginez, norbanako bezala aldarrikapenak kaleratuz edo borrokak hasiz. Hala ere, gauza bera kolektiboki eginez gero, eta batena barik pertsona askoren ahotsak ordezkatuz gero, modu plural batean, errazagoa izango da testuinguruan eta erabakiguneetan influentzia edukitzeko aukera izatea, hau da, lehenago aipatu diren sistemen eraginez galdutako botere politikoa berreskuratzeko. Angela Davisek Bilbon eskainitako agerraldian argi esan zuen kolektiboki lan egiteak dakarrena:

Se trata de una cuestión referente a un movimiento, conseguida gracias al esfuerzo colectivo de multitud de personas (muchas de ellas conocidas), y estas son las que crearon el movimiento capaz de lograr lo imposible (Davis, 2016).

Herri-ekimenekek badituzte beste eragileetatik ezberdin egiten dituzten ezaugarri eta antolatze-erak, eta garrantzitsua da horiek aipatzea, azaletik bada ere, subjektu hauek dituzten erronkak hobeto ulertu ahal izateko.

Gizartearen antolamenduari begiratuz eta espazioei edo eremuei dagokienez, hiru espaziotan antolatuta dago gizartea: batetik, merkatua dago; bestetik, instituzioak, eta, hirugarrenik, komunitatea bera. Herri-ekimenak azken esparru edo eremu horretan kokatzen dira. Ekintza kolektiboaren bidez, boterea azken esparru horretatik lortzen saiatzen dira.

Izaerari dagokionez, honakoa aipatzen dute Ajangiz eta Barcenak:

Beren izaera protestatzaile, gatazkatsu eta errebindikatzailea, eta gizarte eta gizadi gisa eratzten gaituen bizitza kulturean, sozialean eta politikoan beste jokabide eta estilo batzuekin parte hartzeko borondatea dira, beren aniztasuna gorabehera, ondoen definitzen dituzten ezaugarriak (2001:1).

Martinez, Casado eta Ibarrek (2012), berriz, gizarte-mugimendu izenarekin erreferentzia egiten dioten ekintza kolektiboaren fenomenoari hiru berezko ezaugarri edo berezitasun ezartzen dizkiote, bestelako gizarte-erakundeekin alderatuta: izaera

malgua, ez oso hierarkizatua eta sarbide errazekoa izatea; autonomia, identitate kolektibo eta kritikotasun handia edukita, interes orokorrari erantzutea gatazkaren perspektibatik normalean, eta, azkenik, pertsonentzat askatzaileak diren alternatibak eskaintzea.

Gaineratzen dute gizarte-mugimendu bakoitzak, une eta momentu jakinetan, testuinguru politiko eta kulturalak ezaugarri josten dituela, momentuaren eta espazioaren ezaugarriekin ziprztindurik geratuz. Hots, testuinguru bakoitzak une jakinetan bereizgarri egingo dituzten ezaugarriak eskaintzen dizkie.

Herri-ekimenen testuinguruak duen garrantzia aintzat hartuz gero, ezinbestekoa da Euskal Herria berezi egiten dutenak aipatzea.

Gizarte-mugimendu eta herri-ekimenen sehaska izan dela aipatzen dute Ajangiz eta Barcenak Joxemi Zumalabeko kideen hitzak erabiliz:

Nahikoa da gure hurbileko erkidego politikoei azaleko begirada bat ematea, Euskal Herria era guztietako gizarte talde, elkarte eta erakundeen hazitegia dela ohartzeko. Antimilitarismoak, ekologismoak, feminismoak, nazioarteko elkartasunak, euskarak, gazteriak, giza eskubideak, osasunak, sexualitateak, asialdiak, hezkuntzak, komunikazioak, kulturak, kirolak eta abarrek, askotariko esparruak osatzen dituzte eta euskal gizartearen eta euskal sistema politikoaren gain eragina duten mobilizazio eta protesta ugarien iturri izan ohi dira (2001:17).

Azken hori ikusita, nahitaezkoa bihurtzen da balio konkretu batzuen bitartez eraldaketa soziala bultzatuko duten herri-ekimenak zer diren zehaztea. Behin hori eginda, ezinbesteko agente hauek dituzten eta indartu gura diren erronkak ezagutuko dira hurrengo lerroetan.

2. Egungo erronkak herri-ekimenetan

Gaur egun, 2019. urtean, krisi sistemiko eta anizkoitz batean murgildurik gauden honetan, Euskal Herriko testuinguruan, herri-ekimenek hainbat erronka dituzte eta horietako batzuk ezagutzen saiatuko naiz atal honetan. Atala osatzeko, Euskal Herrian herrigintzarekin lanean erreferente diren autore eta elkarteek eginiko lanak erabili dira oinarritzat. Batetik, Joxemi Zumalabe fundazioko kideek, 2012an Udako Euskal Unibertsitateak prestatutako saio batzuetan, herri-mugimenduen eta militantzia-ereduen inguruko lanketa egin zuten. Horretarako, Euskal Herriko herri-ekimenetan parte hartzen duten hainbat kidek parte hartu zuten gogoeta sustatzeko asmotan. Ikastaro horren bukaerako txostenean agertzen denez, hiru multzotan banatzen dituzte militantziaren aspektu ez hain positiboak. Bestetik, Martinez eta Casadoren artikulua (2013) erabili da eta herri-mugimenduen oinarri emantzipatzailea ahultzen duten erronkak ageri dira testuan. Bi lanak aztertu eta gero, erronkak hiru multzo nagusitan bana daitezke: egiturari eta funtzionamenduari dagozkienak, lan egiteko moldeei dagozkienak, eta, azkenik, alderdi emozionalari, sentimenduei edo subjektibotasunaren gabeziari dagozkienak.

Hasteko, herri-ekimenen ahultasun eta erronka garrantzitsuenetako batekin egiten dugu topo, hau da, testuinguruan sortzen diren botere-asimetriak errepikatzearekin,

esaterako, sexu-generozkoak, adina, esperientzia edo ezagutzari lotutakoak. Horri lotuta dago horizontaltasuna dagoela ziurtatzeko praktiken falta. Izan ere, daudenean ere sortzen dira ezberdintasunak, izan lidergo pertsonalizatuak direlako, espazioen okupazioa egiten delako, antolakuntzan malgutasunik eza dagoelako edo lidergoak ordezkatzeko eta berritzeko arazoak egoten direlako. Hori dela-eta, gizartean baino modu inplizituago baten, baina botere-ezberdintasunak agertzen direla aipatzen dute.

Herri-ekimeneak, mugimendu eta esparru emantzipatzaile bezala ulertuak direnak, izaera dinamikoak, jarioasunezkoak, egokitze samurtasundunak, trantsitorioak, malguak izaten dituzte, eta, beraz, ez dira oso estrukturatuak izaten, ez behintzat estruktura zurrunezkoak. Lehen begiratu batez, badirudi hau guztia egokiena dela asimetriarik eta dominaziorik egon ez dadin, baina autoreek diotenez, zaindu ezean kontrara etor daitezkeen ezaugarriak ere badira eta botere-harreman asimetrikoak agertzea erraztu dezakete.

Gauzatutako ikerketan parte hartutako militanteek diotenez, zailtasunak, tentsioak eta erronkak sortzen dituzte egoera hauek eta maiz, zuzendaritza modu tradizionalak erreproduzitzearekin bat datoz. Hori guztia, lan honetako lehen atalean aipatutako sinesmen eta ideologiak errotuta edukitzeagatik gerta daiteke, inertziak izango balitz bezala. Askotan, urte askoan diharduten pertsonengan konfiantza jartzen da eta hierarkikoa eta estatikoa bihurtu daitezke zuzendaritza, antolakuntza tradizionalakoa, besteak beste, parekidetasunean zailtasunak izan ditzaketenak, edo zuzendaritzaren eta oinarrien artean komunikazio-zailtasunak eduki ditzaketenak. Ondorioz, tendentzia bertikalak eta pertsonalizatuak, eta, gizartean bezala, botere-harremanak sortzen dira.

Bigarrenik, lan egiteko moldeei dagozkien erronkak aurkitzen dira. Horren barnean aipatzen dute lan egiteko jada ezarritako moldeak errepikatzen direla, hau da, dominanteak diren ideologia horiek sortzen dituzten jarrerak erreproduzitzen direla behin eta berriz, modu inkontzientean izanda ere. Bi azpimultzotan bana daitezke multzo hau. Batetik, gizarteak bere ideologiaren bidez transmititutako indibidualismoaren kutsua duen erronka ageri da, sarean lan egitearen beharra, hots, kolektiboa kolektibizatzea. Borroka partzialki egiten dira, hau da, osotasunean ikustea zaila da eta bakoitzak bere esparruan borrokatzen du. Horrela, samurragoa da ideologia dominantea gailentzea edo autoreek dioten bezala: «Resulta más fácilmente absorbible por el status quo» (Martinez eta Casado, 2013: 34).

Atal honetan aipatzen dute gizarte-mugimenduek berezko izaera antihegemonikoa dutela. Aldiz, ahulezia bezala identifikatuak izaten dira, batzuetan, jada ezarriak datozen gizarte-estrukturara mugatzen ez diren politikak edo praktikak aurrera eramateko ezintasun edo zailtasunak. Garrantzitsua da horiek zalantzan jartzea eta markoa zabaldu eta, beraz, elkarrekin lan egitea, finean, ikuspuntua zabaltzea ahalbidetzen duten praktikak martxan jartzea. Horretarako eta bestela ere, beste eragile batzuekin lan egitea garrantzitsua izan daiteke, nahiz eta, Euskal Herrian, maiz, lan zaila izan, salbuespenak salbuespen (badaude-eta sarean lan egiten duten herri-ekimenak). Legitimazio soziala hazteaz gain, besteak beste, hizkuntza

edo kulturak elkartzea dakar eta harresiak apurtzea. Izaera oraindik irekiagoa lortzen da, eta, pluralagoa izatean, gizartearen espektro zabalagoan eragitea ahalbidetzen du, aniztasuna ezagutuz eta errespetatzen ikasiz. Horrekin batera dator hurrengo atalean landuko den ideia garrantzitsuenetako bat, zeinak jendartearen gertatzen diren zapalkuntza, asimetria edo dominazioen arteko loturak ikustea ahalbidetzen baitu, modu askoz aberasgarriago eta sakonago batean ezagutuz.

Capacidad de elaborar, junto con colectivos y organizaciones centradas en otras luchas emancipadoras, análisis que permitan mantener una visión global que evite una excesiva parcialidad y sectorialidad no cuestionadora de las múltiples formas de opresión, y por lo tanto que no plantee un horizonte emancipador sin opresiones de manera solidaria e integral (2013: 38).

Bestetik, logika merkantilistekin bukatu beharra dago, eta, hori ere, erronkatzat identifikatu izan da. Maiz, herri-ekimenez, ohartu gabe bada ere, merkatuak txertatutako ideologia produktibista, materialista eta merkantilista daramate beren baitan. Badirudi ez gairela gai logika horiek erabili gabe lan egiteko eta herri-ekimenez aurrera eramaten den lana, maiz, efikaza, produktiboa eta abar izatera soilik enfokatzen da. Askotan, bizitzan gertatzen den bezala, beste faktore batzuei begiratzea ere garrantzitsua da, eta helburua lortzeko erabiltzen den prozesuan indarrak eta garrantzia jartzea helburuetan jartzea bezain garrantzitsua da fruituak jaso ahal izateko. Militante moduan aurrera eramaten diren gauzak ezin dira merkatuek markatzen dituzten epe eta formetan aurrera eramanez, bestela ez dira askatzaileak izango; izan ere, ezin da errealitatea irauli, irauli nahi dugun horrek erabiltzen dituen logika eta erreminta berak iraulita. Berriak sortu behar dira, irauli ostean sortzen duguna jasagarria izan dadin. Ondorioz, honelakoak gertatzen dira: prozesuaren estandarizazioa eta monotonizazioa edo *full timea*⁴.

Hirugarrenik, sentimenduei edo subjektibotasunari dagozkien erronka edo ahuleziei buruz hitz egin zuten. Alderdi emozionalari lotutakoak ziren multzo honetan kokatzen zituzten ahuleziak, besteak beste, errepresioari beldurra, bakardadea, ezintasuna, nekea, estresa edo betekada. Orokorrean, subjektibotasunari eta pertsonaren beraren aspektu emozionalei, praktikaren eraginez agin, egiten zaien gutsiespena ere erronka da. Aurrekoarekin oso lotuta badago ere, bizitzari eta kolektiboa osatzen duten militanteen bizitzari behar besteko garrantzia ez ematea ere herri-ekimenezko erronka bihurtu da. Feminismoaren aldarrikapen nagusietako bat, bizitza erdigunean kokatzea, herri-ekimenezko testuingurura ekarritako bizitza militantziaren erdigunean kokatzea nahitaezkoa ikusten da, gizartearekin, inguruko pertsonekin eta norbere buruarekin justuago den herrigintza bat bultzatze aldera. Besteak beste, prozesuari garrantzia ematea, dependentziarekin apurtzea, pertsona bere integritasunaren erdigunean jartzea. Hain zuzen ere, militantziaren erdigunean, elkar zaintzeari erreparatu eta lanketa egiteak pertsona eta taldeen mantenua egitea dakar, eta hori guztiz lotua dago, esan bezala, hirugarren multzoarekin.

Garrantzitsua bihurtzen da horiei erantzutea, pertsonok osatzen dugun gizartearen gainbehera beldurgarria jazotzen ari den honetan. Eliteetan dauden gizonezko

4. *Full timea* aipatzean, etengabeko militantziaz ari gara, hots, egun osoa militantziara dedikatutarik egoteaz, testuinguru honetan ezagutzen den jokamoldea.

zuri, adin ertaineko, aniztasun funtzionalik gabeko, mendebaldeko eta abarrek kontrolatzen duten mundu aurrerakoi honi balazta jarri eta aurre egiten hasia. Horretarako, baina, beharrezkoa da herri-ekimen eta gizarte antolatu indartsu bat, lehenbailehen, herri-ekimeneen erronkei buelta eman eta indartsuago erantzuteko. Gure gizarte gero eta injustuagoa da, osatzen dugun pertsonen nolakotasunaren eta jatorri, sexu-genero eta abarren arabera larritzen da, ezberdintasunez beteta dago, dominazioak etengabeak dira eta horri aurre egiteko erreminta askatzaileak dira herri-ekimenak.

Feminismoaren eskutik, beraz, herri-ekimenak indartzeko proposamenak egiten saiatuko gara hurrengo atalean, indartsuagoa eta osasuntsuagoa izango den militantzia bat bultzatuz eta herri-ekimen indartsu eta justuago bat sortzeko asmoari ekarpena eginez.

3. Feminismoaren ekarpena herri-ekimenei

Atal honetan, feminismoak eskaintzen dituen teoria zein praktiken bidez, herri-ekimenei egiten zaizkien ekarpenak aipatuko dira. Nahiz eta hurrengo atalean erronka jakinei erantzun konkretuago bat ematen saiatu, oraingo honetan, orokorrak diren ekarpenak jasoko dira.

Herri-ekimeneen erronkak aztertzeke orduan ikusi bezala, nahiz eta ezberdintasunak sortzen dituzten ideologia dominanteetatik askatzeko sortuak diren mugimendu edo ekimenak izan, haien barruan, norbanako bezala oso barneratuak ditugun praktikak etengabe erreproduzitzen direla ikusi ahal izan da.

Funtzionatzeko, antolatzeko eta ekiteko moduetan igartzen da gehienbat, eta herri-ekimeneetan merkatuaren logikak behin eta berriz erreproduzitzen direla ikusten da, herrigintzak dituen logika propioek garrantzia galduz. Horien artean daude izaera komunitarioa, herrikoa, elkarren zaintzari arreta jartzeko beharra, elkartasuna, elkarrekintza, interdependetzia eta abar. Horiek, aipatu bezala, ez dute behar luketen besteko indar, eta kutsu merkantilista duten hainbat logika agerian geratzen dira, besteak beste, efikaza izatearen beharra, helburuari hura lortzeko prozesuari berari baino garrantzi gehiago ematearen ideia, etengabeko militantziaren ideia eta ondorioz agertzen den *full time* fenomeno, eta beste zenbait. Hori horrela izanik, irauli nahi diren ideologia eta sistema dominante horiei aurre egiteko ekinbideetan ere, haien logikak islatuta agertzen dira, hala, zaildu egiten da eraldatzea haiek erabiltzen dituzten erreminta berak erabiliz gero. Aldiz, garrantzitsua da ikasiak direla aipatzea eta, horiek, jarrera, jokaera, jokamolde eta ekiteko erak sozialki sortuak diren heinean, dinamikoak, malguak eta, garrantzitsuena, aldagarriak direla jakitea.

Egoera honen guztiaren aurrean, hainbat ekintzaile eta ikerlari feministaren ahoetatik ateratako kapitala-bizitza gatazkaren planteamenduak horretan lagundu dezakeela ikusi da. Planteamendu horrekin, barneratuta ditugun logika horiek zalantzan jartzen dira eta kapitalaren logikak bizitzarenarekin kontrajarriak direla mahaigaineratzen da.

Amaia Perez-Orozcoren (2015) planteamenduari helduz, ekonomia feminista nola ulertzen duen aipatu beharra dago, kapitala-bizitza gatazka bertan kokatzen baita. Ekonomia feministak analisiaren ardatza kapitalaren balorizazio-prozesuetan jarri ordez, bizitzaren jasangarritasun-prozesuan jartzen duela dio. Azken finean, soilik ekonomikoak izan daitezkeenak (ordainketen balantzaren garapena, berrikuntza teknologikoak, ekonomia librean oinarritutako tratatuak, makroproiektuak eta abar) egunerokotasunera ekartzean sortzen den analisia da, hots, horiek, subjektu bakoitzarengan nola eragiten duten ikustea, bizitzan zer eragin duten ikustea.

Jorratu nahi dugun kapitala-bizitza gatazkaren planteamendua ulertzeko, aipatzekoa da kapitalismo heteropatriarkalak merkatua jarri duela gure bizitzak antolatzeko era bezala eta, horren ondorioz, gertatzen direla merkatuaren logiken etengabeko erreflexuak herri-ekimenetan.

Perez-Orozcoren (2015) zera dio: nahiz eta hemen eta orain jada ezarriak dauden antolakuntzako estruktura egon, posible da beste era alternatibo batean antolatzea, jokatzeko eta ekitea. Izan ere, beste eremu geografiko batzuetan eta beste momentu batzuetan egon dira eta, maiz ezezagunak diren arren, hemen eta orain ere badaude modu alternatiboak. Garrantzitsua da hau ere herri-ekimenen baitan planteatzea; izan ere, herri-ekimenean, lehen esan bezala, logika ezberdinak dituzte berez, eta herrigintza, bizitzan oinarritzen diren logikekin sortua izan da, beraz, horiek erreproduzitzea bultzatu behar da eta kapitalaren alde batera joaten utzi.

Bi gauzarengatik da garrantzitsua: batetik, zapalduak diren pertsona guztien askapena, era orokorrago batean, gertatzea ahalbidetzen duen logika bakarra delako, eta, bestetik, horrelako logikak gure esparruetan erabiltzen hasiz gero, hedatzen joatea errazagoa delako. Lehenago aipatu bezala, formula hauek erabiltzea, planteamenduak erremintatzea hartzea eta proposatutako hausnarketak egitea, logika berriak praktikan jarri, gutxi batzuen artean egiten bada ere, praktika iraultzailea izango da berez, hots, gizartearen aldaketarako ekarpena.

Zehaztasun gehiagotara joz, bi ekarpen garrantzitsu egiten direla aipatu behar dugu. Batetik, gure bizitzan erdiguneetan merkatua kokatuta dagoela ikusita, ulertzea eta identifikatzea tokatzen da, horrela bakarrik ulertu ahal izango da nola diren merkatuaren inertiak etengabe gure praktika iraultzaileetan islatzeko gai. Ulertuz, bakarrik gal dezake herri-ekimenetan hartzen duen garrantzia. Bestetik, aipatzen du, kapitalismoarentzat, bizitza bere helburuak lortzeko bitarteko bat besterik ez dela eta hori dela, beraz, gatazkaren zentzuetako bat. Herri-ekimenetan helburua bizitza erdigunean kokatzea eta gure bizitzak ongi eta aske, mendekotasunik gabe, bizitzea bada, norbanakoak ezin dira izan bakarrik partaide kolektiboak berak dituen helburuak lortzeko, hori baino gehiago izan behar dute. Horrekin batera, ulertzen da horrelako ekimenetan, prozesuak berak, sortzen diren elkarrekintzek, harremanek eta abarrek jasotzen diren emaitza politikoek bezain garrantzitsuak izan behar dutela, hori baita finean praktika iraultzaileak egitea. Hori dela-eta, aldaketak egin nahi baldin badira, derrigorrean, bizitza, bere osotasunean kontuan hartuko duten eta gure artean sare horiek handitzen joango diren praktikak beharrezkoak dira.

Zaintza orain artean, etxean gauzatu da, emakumeek gauzatu dute, ezkutukoa izan da eta ez ordaindua. Horrela, sistema eratu da eta hori beharrezkoa ez balitz bezala jokaten du merkatu kapitalistak. Yayo Herrerok ekofeminismoaren ildotik, 2014. urtean, Madrilan, jardunaldi batzuetan emandako hitzaldian aipatzen duen bezala⁵, merkatuak ez dio so egin sekula hori lortzeko beharrezkoa den piramideari. Adituak dioenez, ekologismo eta feminismoaren ekonomiaren ikuspuntuak, berriz, horren baitan jartzen du arreta. Sistema, hiruki baten lez irudikatzen dute, eta merkatua, ordaintzen dena, produktiboa dena, soilik goiko puntatxo txikia izango litzatekeela diote. Izan ere, behekoa, oinarrian dagoena, benetan goikoari eusteko baliagarria dena eta askoz espazio gehiago okupatzen duena, zaintza eta pertsonen bizitza sortu eta eustearen lana da, edo natura bera da, bere lehengai eta zikloekin. Beraz, ezin da ulertu nola azal daitekeen merkatua eta produktiboa dena, beste guztia ezkutatuz. Herrerok aipatutakoak, beraz, bizitzari eta bizitza sortzeak duen garrantziari egiten die erreferentzia. Merkatuaren esparruak baino askoz garrantzi gehiago izatean, ezinbestekoa baita hura erdigunean jartzea eta horren inguruan lan egitea, eta hori erdian kokatuz sistemaren beste dimentsio guztiak osatzea. Gauzak horrela eta hau herri-ekimenen aferara ekarriz, garrantzitsua da kontzientzia hartzea eta benetan berau ahalbidetuko duten praktikak nola gauzatu hausnartzea, gutxienez, inertiak aldatu eta horren bidean jartzeko.

Aurreko guztia ikusita herri-ekimenean zera egin daiteke: batetik, interdependentziaren eta ekodependentziaren errealitatearekin bat egin, ezagutu eta kontzientzia hartu, eta, bestetik, horiek herri-ekimenean, elkarren arteko zaintzan eta bizitzari beharrezkoa den garrantzia emanez emozionala eta afektuzkoa denari beharrezko lekua aitortzeko lanean jarri.

Herri-ekimenen barruan elkarren arteko zaintza edo esparru afektibo eta emozionalen lanketari garrantzia eman eta gauzatzeko beharra azaltzen da. Patriarkala den gizartean, feminizatuak daude emozioak sentitzeko eskubideak, sare afektiboak sortzeko pertsonok ditugun behar ukaezinak eta elkarren arteko zaintza gauzatzearen ezinbestekotasuna. Herri-ekimenean, pertsonekin osatuta dauden unetik, gauza hauek guztiak kontuan edukitzea eta praktikara eramatea ezinbesteko bihurtzen da, elkarren artean harreman osasuntsu bat egon dadin, lanaren banaketa egokia izan dadin eta gauzatzen diren prozesu zein ekimenean benetako fruituak eman ditzaten. Hau guztia ere politikoa delako aldarria egin behar da, ezin baita bata bestea gabe ulertu edo aurrera eraman.

Aipatutakoaz gain, erronken atalean botere-harremanak sortzen direla eta beste ekimen batzuekin saretu beharra dagoela ikusi da. Horren aurrean, interseksionalitatearen⁶ planteamenduak hurrengo ekarpenak egiten ditu. Ikuspegi, kontzeptu, erreminta horrek, ezberdintasunekin, zapalkuntzekin edo opresioekin bukatzeko hainbat gako ematen ditu eta lan honen helburua izango da horiek herri-ekimenean egokitzea.

5. Hitzaldiaren inguruan gehiago sakondu gura bada, hemen eskuragarri: <https://www.youtube.com/watch?v=kb6_SA08zxl>.

Herrero, Y. (2014): *Somos interdependientes. Attac Madrid Contraatacando Renta Basica y sostenibilidad*. (Kontsulta: 2017/5/19)

6. Hurrengo atalean aurki daitezke landuta interseksionalitatearen oinarriak.

Collinsek (2000) bere liburuan, gakoa gizarte-aldaketan jartzen du eta horrela azaltzen saiatzen da nola eragin dezakeen interseksionalitatearen ikuspegiak horretan. Esaten du ezberdintasun mota asko eta askotarikoak sortzen dituela eta horrek zeharkakotasunez aldaketa horretan eragiten duela. Hori dela-eta, gaineratzen du gizarte-ikerketara edo praktika soziala egiteko ikuspegi honek guztia politiko bihurtzen duela eta baita talde ezberdinetarako balio dezakeela ere.

Gandarisek (2016) ildo beretik aipatzen du erreminta politiko bat dela eta, horrela, bazterketa mota ezberdinak bistartzeko balio dezakeela. Hori herri-ekimenetara eramanez, talde berean egon daitezkeen pertsonen arteko bazterketa eta dominazioak erakutsarazteko balio duela ulertzen da. Horretaz gain, kategoriak zentrotik kentzeko ere balio duela aipatzen du eta haien artean nola dauden harremanetan ikusi ahal izateko. Bestalde, esaten du geure buruetan binaristak diren estrukturekin jarraitzen dugula eta, horrek, gure praktikak horrelakoak izatera bultzatzen gaituela. Interseksionalitatearen bidez, baztertzailerak diren kategoriak irauli ahal izateaz gain, estruktura eta pentsamendu binaristekin ere amai daiteke.

Platerok (2014) aipatzen du, botere-harremanen inguruko ikerketa bat bezala ulertzeaz gain, pribilegioen inguruan teorizatzeke ere balio duela. Horrela, talde dominanteek beren gailentasun-kokapena mantentzeko diseinatzen dituzten estrategiak nola diseinatzen dituzten aztertuz eta herri-ekimenetan dauden talde dominanteek edo beste kide guztiek baino botere gehiago duten pertsonen aurrera eramaten dituzten jarreretan zentratuz, lanketa egiteko ere balio du.

Azkenik, Cruellsen (2012) aburuz, mobilizazio sozialarekin, maiz, zapalkuntza edo asimetria bat landu izan da, sistematikoki ahaztuz ezberdintasunak sortzen dituzten kategorien gurutzaketen artean sor daitezkeen guztiak. Horretarako, interseksionalitatea erreminta egokia dela dio.

4. Interseksionalitatea erronkei aurre egite aldera

Atal honetan, interseksionalitatea aurkeztuko da. Teoria eta praktikaren bidez azalduko da nola erantzun diezaiekeen herri-ekimenetako botere-harremani eta herri-ekimeneen bueltan dagoen saretzearen beharrari. Interseksionalitatearen inguruan, hainbat eta hainbat feministak idatzi eta hausnartu dute, besteak beste, hurrengo lerroetan oinarri bezala hartuak izango direnak.

Garrantzitsua da definizio ezberdinak lantzea, autore guztiek ezaugarri komunak izanik ere, interpretazio eta planteamendu ezberdinak egiten baitituzte: Platerok (2014) dio, terminoak, ezberdintasunak sortzen dituzten iturri estrukturen arteko loturak eta elkarrekintzak kontziente egiten dituela. Gaineratzen du, testuinguru bakoitzean, pertsona bakoitzak adiera horiek nola sentitzen dituen aipatzen duela, denboraldi baterako soilik baliagarria izango den esanahi bat sortuz.

Cruellsek (2012), aldiz, gogorarazten du 80ko hamarkadatik hainbat aktibistak edo teorialari feministak ohartarazten dutela fenomeno honen garrantziaz, eta honela definitzen du:

El fenómeno de la interseccionalidad política: La necesidad de tener en cuenta la interrelación entre desigualdades a la hora de definir estrategias de acción política, ya que las iniciativas dirigidas a la solución de una desigualdad no son neutrales hacia otras desigualdades (2012: 54).

Viverosek (2016), berriz, dio, botere-harremanen erlazio gurutzatu edo teilakatuaren kontzientzia hartzea bilatzen duen perspektiba teoriko eta metodologikoa dela interseksionalitatea. Horrela esaten du Gandariasek (2016) ere, eta gaineratzen du, bere ustez, bakoitzaren pribilegioez ohartzeko ere balio duela, zapalkuntza ezberdinak gainditzeko erreminta izateaz gain.

Azkenik, Angela Davisek (2016) bere azken liburuan erronkatzat definitzen du. Bereziak eta loturarik gabekoak diruditen arren, kategoria edo botere-harremanak sortzen dituzten estrukturaen artean sortzen diren lotura konplexuak direla dio.

Aipatutako definizio denei erreparatuta, zera ondoriozta daiteke: modu ezberdinetara ulertu arren, guztiak botere-sistemen artean sortzen diren elkarrekiko lotura konplexuen inguruan mintzo dira. Horretaz gain, une bakoitzean, testuinguru bakoitzean eta pertsona bakoitzarengan ezberdin eragiten dutela eta horrela aztertu behar direla diote.

Interseksionalitatearen ideia Estatu Batuetako borroka politikoko esparruetan garatzen hasi zen, gehientsuenetan emakumen beltzek. Hori dela-eta, azpimarratzen dute bizitza-esperientzietatik, borroka ezberdinetatik jaioa dela. Baina, terminoa bera ere, AEBn izan zen erabilia lehen aldiz 1989. urtean Kimberle Crenshaw⁷ legelari beltzaren bitartez, berak University of Chicago Legal Forumerako idatzitako, «Demarginalizing the intersection of race and sex: A black feminist critique of antidiscrimination doctrine, feminist theory and antiracist politics» artikuluan. *Demarginalizing the intersection of Race and Sex*, 2009. urteko konferentzian, Crenshawek berak aitortu zuen bere asmoa ez zela sekula izan zapalkuntzaren inguruko teoria orokor bat sortzea, egoera juridiko eta ezberdintasun konkretoak aztertze erabilera praktikoko kontzeptu bat baizik. Orduetik, kontzeptuaren beraren inguruan lan asko egin da, praktikoki eta teorikoki eta horrela autore askok planteamendu ezberdinak egiten dituzte hura ardatz izanda.

Collinsen (2002) aburuz, hauek dira interseksionalitatearen teoriaren printzipioak: lehenik, dominazio-sistemak konplexuak direla aipatzen du; bigarrenik, modu ezberdinetara eraikiak izaten dira eta moldatu egiten dira; hirugarrenik, izaera dinamikoa du, hau da, zapaltzaile izatetik zapaldu izatera pasatzea erraza da, eta, azkenik, edozein jokoera sozialek momentuan aurkitzen den interseksio-kokapena identifikatzea ahalbidetzen du, hau da, zein den momentu horretako posizioa.

Platerok (2014) interseksionalitatearen ideia aldatzen joan dela dio eta «monofokalak» ziren bisioetatik «diskriminazio anizkoitza»ren ikuspegira pasatu dela gaineratzen du.

7. Kimberle Crenshaw 1989. urtean jaioa. Jurista estatubatuarra da eta unibertsitateko irakasle izateaz gain, emakume beltz langileen kasuekin lan egin zuen. Horrela, konturatu zen hiru kategoria horien (arrazak, klasea, generoa) arteko gurutzaketan zegoela erroa eta interseksionalitatearen kontzeptuaz hitz egin zuen.

Kontzeptuaren inguruan aurreko guztia ezagutu ondoren, hurrengo lerroetan, interseksionalitatearekin zerikusia duten teoria eta praktika ikusiko ditugu, lanketa honetako helburuari, ustez, bakoitzak zerbait aportatuko baitio. Plateroren hitzetan oinarrituz hautatutako autore guztiek, planteamendu ezberdinak egiten dituzten arren, honakoa daukate komunean:

Señalan la importancia que tiene desafiar la mirada interseccional como algo identitario y poner el acento en las relaciones recíprocas que mantienen algunas desigualdades. Estas desigualdades cobrarán más o menos importancia según los contextos, donde generarán dinámicas de inclusión/exclusión y así como cierto acceso a los privilegios (2014: 63).

Hasteko, Patricia Hill Collinsekin (2000) hasiko gara. Goraxeago aipatu bezala, aldaketa sozialaren beharraren ikuspuntutik egiten du lan, jomuga horixe izanik. Aipatzen du zapalkuntza oso modu desberdinetara bizitzen dela jakin behar dela. Gainera, interseksionalitateak zapalkuntza konplexua dela ulertzen duela eta, beraz, modu horretara erantzun behar zaiela; autore horren aportazioa interseksionalitatearen baitan, opresioaren edo dominazioaren matrizea da, «Matrix of domination» izenez ezagutzen dena. Interseksionalitatetik sortutako erreminta kontzeptual bezala ulertzen da eta, kontzeptu horrekin, gizarte batean dagoen boterearen antolakuntzari egiten dio erreferentzia eta dominazio dinamikoa erakutsi nahi du. Beste modu batera esateko, dominazio-matrizea, interseksioaren ardatzak dira, besteak beste, heteropatriarkatua. Collinsek gaineratzen du testuinguru, leku bakoitzak matrize ezberdinak dituela, baina, zerbait konkretua diseinatu nahi baldin bada, hau da, zapalkuntzak irauliko dituzten ekinbideak eraiki nahi baldin badira, matrizea aurkitzea ezinbestekoa dela. Hori horrela izanik, erreminta oso interesgarria da herri-ekimenek dituzten barrura begirako dominazioen aurrean, baita kolektibo bezala aurre egiten ari diren dominazioen aurrean ere.

Honetan guztian sakonduz, matrizearen barruan, sistemek elkarri eragiten diotela dio eta matrize horrek hiru maila ezberdinetan eragiten duela: pertsonalean, talde-komunitatekoan eta instituzionalean (Martinez, 2017).

Maila ezberdinak daudela aipatzeaz gain, dominazio-matrizea testuinguru ezberdinetan erreproduzitzen dela aipatzen du. Lan honetarako interesgarriena intersubjektibo edo interpersonala da. Testuinguru honetan (aldaketa bultzatzeko testuinguru hau da lehen pausoa), bizitako esperientziak, pertsonekin eraikitzen ditugun harremanak, harreman pertsonalak eta eguneroko elkarrekintzak aipatzen ditu. Ikusi beharra dago bakoitzak opresioa nola bizi eta ulertzen duen, norbere burua eta bere bizipenak kontuan hartuz. Aldatzeko, gure pentsamenduek eta ekintzek beste pertsona zapaldu baten aurrean eusten diguten moduari egiten dio erreferentzia. Ondorioz, jendeak bizi duen opresio batekin identifikatzen da, eta horretan zentratzen denez, bizi dituen beste opresio guztiek garrantzi gutxiago dutela pentsatzen du. Ildo beretik, ikerketa honetarako aberasgarriena den gakoetako bat aipatzen du: opresio bakarra garrantzitsutzat hartzeak, kontzientzia ez izanagatik, zapaldua zapaltzaile izatera oso azkar pasatzeko arriskuak biderkatzen ditu.

Beste gauza batzuen artean, beraz, hemen gakoa. Askotan, kolektiboki zapalkuntza baten aurka borrokatzen dugu, jasaten ditugun beste zapalkuntzetan arreta jarri gabe. Hori horrela, herri-ekimenaren barruan bizi ditzakegun zapalkuntzak ahazten ditugu, eta, okerragoa dena, norbera zapaltzailea nola izan daitekeen bistaratzeko aukerak galtzen ditugu. Matrizea aurkitzea, beraz, ezinbestekoa da, bertan gurutzatu eta eragiten diren zapalkuntza-estruktura guztiak ezagutzuz eta aztertuz. Horrela bakarrik izango da horien aurka modu eraginkor batean lan egiteko aukera. Horretaz gain, aipatutako maila eta estruktura herri-ekimenera eraman daitezke eta banaka aztertu, sistema bat balitz bezala.

Collinsek interseksionalitateari lotuta egiten duen beste ekarpen aberasgarri bat elkartasun kritikoren ideia da. Collinsek dioenez, beste pertsona batzuek esan edo sentitzen dutenarekin solidarioak izan gaitezke, nahiz eta jakin, ez duela zuzenean norberarentzat balio. Hala ere, garrantzitsua da oprimitua den beste pertsona baten sentimenduekin enpatizatzea eta hori ezberdintasun edo asimetriak gainditzeko erabili ahal izatea. Esate baterako, norbaitek generoagatik zapalkuntza paira dezake eta ondoan dagoenak zapalkuntza hori sufritu ez arren, ziur sekula oprimitua izan dela eta sentimendu eta bizipen horiek zapalkuntzaren aurka estrategiak diseinatzeko erabiltzea proposatzen du. Azken finean, kasu honetan, Collins, artikulatzearen ideiaz mintzo da, saretzearen beharraz. Herri-ekimenerako gako garrantzitsu bat da; izan ere, beste zapalkuntza batzuen aurka borrokan dabilen jendearen bizipen eta esperientziak ezagutzeak gure esperientziak aberastea, beste zapalkuntza batzuen kontzientzia hartzea eta, ondorioz, elkarren arteko lotura ezberdinak egitea ahalbidetu dezake. Logika honen oinarrian ere, interseksionalitatearen ideia aurkitzen da eta logika bera erabiltzen du hurrengo lerroetan Gandariasek egiten duen planteamenduak.

Praktikotasunera ekarrita, Gandariasek (2016) ezberdintasunen artikulazio feministaren inguruan hitz egiten du. Horretarako, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako (EMM)⁸ plataforman kokatzen da ekintzaile eta ikerlari moduan, lan honetarako ekarpen aberasgarriak egiten dituen planteamendua sortuz: nola sortu komuna den zerbaite, ezberdintasun eta diferentzietatik. Euskal Herriko herri-ekimenera gertatu bezala, Gandariasek aipatzen du, EMMko taldeetan, praktika kolonial eta patriarkalak behin eta berriz islatzen direla eta horretan egin dela esfortzu berezia. Collinsek matrizearen ideia gogora ekarriz, esan daiteke ikerketa honetan parte hartutako EMM osatzen zuten kideek aurkitua zutela jada beraiek interseksionalki zapaltzeko esturturen matrizea, eta hortik eraikitzen joan direla hori irauli ahal izateko estrategia. Estrategia horren barruan, autoreak lau praktika nagusi identifikatzen ditu: presentzia eta parte-hartze aktiboa, izan ere, ez bazara ezagutarazten, existituko ez bazina bezala da; ezberdintasunaren erretorikekin

8. Euska Herriko Emakumeen Mundu Martxa: «2000. urteko EMM igarota, bost urtetik bost urtera mundo osoko mobilizazio bat egiteko konpromisoa hartu zuten emakumeek, eta horrela, 2005. urtean, pobrezia eta indarkeriaren aurka berriro mobilizatzeke proposamena egin zuten. Euskal Herrian, 2003tik aurrera, aurreko ibilbideari jarraituz, eta 2005ean martxa indartsua antolatzeko gogoz berregituratu zen Mundu Martxako plataforma. Askotariko eragile eta kideekin osatu zuten, hala nola hainbat herrialdeetako talde feministekin, sindikatueta eta alderdieta Emakume arloekin, eta talde mistoetako emakumeekin (...). Plataforma horren helburua, EMM dinamika Euskal Herrian ezagutaraztea zen» Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015: 335).

haustura ematea; desakordioak akordatzeko politikak, eta, azkenik, aurrez aipatu direlako, atal honetan aipatuko ez diren elkarren arteko zaintza ahalbidetzeko espazioak sortzea.

Lehen praktika esanguratsu bezala, presentzia eta parte-hartze aktiboa hartzen ditu Gandariasek. Bere ikerketako esperientzian, Mujeres del Mundo Babel (MMB)⁹ EMMn parte hartzeko eman behar izan zuen saltoari buruz mintzo da. MMB kolektiboa eroso aurkitzen zen bere esparruan, baina hor zaudela esateko eta Euskal Herriko emakume-talde ezberdinekin batera beren esparrua okupatzeko, EMM bezalako plataforma batean parte hartzea ezinbestekoa zela pentsatu zuten, bertara, haien aldarrikapenak eramateko era bakarra baitzen. Horrela deskribatzen du Gandariasek:

Era necesario atreverse a «cruzar la puerta», para unirse a una plataforma que ya estaba conformada y tenía sus propias dinámicas. MMB consciente de ese salto cualitativo que supone salir de tu espacio e ir al encuentro de las otras desde una presencia activa. No fue una apuesta tímida, sino una decisión política colectiva para llevar a esos espacios discursos elaborados que visibilizaran reivindicaciones de las mujeres migradas (2016: 372).

Horretarako, ezinbestekotzat hartu zen kolektibo barneko espazioak indartzea, horrela diskurtso eta hausnarketa kolektiboak eraiki eta EMMko asanblada orokorretara transmititzeko. Gaineratzen du opresio ezberdinak bizi dituzten kolektiboen artikulatzeak garrantzi handia duela, baina sekula gure espazio propioa utzi gabe. Hori horrela izanik, Obioma Nnaemeka autorean oinarrituz, hauxe dio:

No nos debemos encerrar en un espacio cuyo confort puede ser letárgico [...] nuestra habilidad para usar nuestro espacio como una herramienta para remodelarnos a nosotras mismas y a la sociedad dependerá de nuestra voluntad de abrir las puertas de nuestro espacio para permitirle proyectarse e intersectarse con otros espacio (2016: 373).

Planteamendu horrek bi ekarpen egiten ditu. Alde batetik, maiz, opresio batzuen kontra lan egiten dugunean, gu ere zapaltzaile izan gaitezkeelako ideia ahazten zaigula. Hau da, emakumeen eskubideen defentsan ari direnak izan daitezkeela aldi berean beste emakume talde batzuentzat «zapaltzaile», askapenaren alde lanean ari diren kolektibo zein norbanakoen artean botere-harremanak eta asimetriak sortuz. Modu egokia da, beraz, horrelako plataformen bidez saretzea eta salto kualitatibo handia dakarren «cruzar la puerta» egitea gure artean ematen diren asimetriez kontzientzia hartuta erraztuz. Bestalde, ildo beretik jarraituz, mota ezberdinetako zapalkuntzak jasaten dituzten pertsona eta taldeak elkarreraginean jartzeko balio du, agian, ikuspegi interseksional batetik, elkarren artean gurutzatzen diren opresio berrien inguruko informazio aberasgarria helaraziz, ezinbestekoa baita, zapalkuntzak irauli ahal izateko, ondo ezagutzea.

9. «Mujeres del Mundo Babel: **Mujeres del Mundo-Babel** somos un grupo de **MUJERES**, unas nacidas aquí y otras que han llegado de otros lugares, y que desde 1999 nos juntamos». Informazio gehiagorako: <<http://mujeresdelmundobabel.org/quienes-somos>>.

Mujeres del Mundo Babel. *¿Quiénes somos?*, (Kontsulta:2017-5-10).

Bigarren praktika interesgarria diferentzien erretorikarekin haustea da. MMBk EMMn parte hartzeak, barnean sortzen diren diferentzien kontzientzia hartzeko balio izateaz gain, horiek pertsonen eguneroko bizitzetan dituzten eragin politiko-materialak bistartzeko ere balio du. Interseksionalitatearen bidez, sortzen diren ezberdintasunak deskribatu eta zerrendatzeaz gain, zeharkatzen gaituzten ezberdintasunen inguruan hausnartzeko balio du, horrela, guztiok eskubide eta aukera berdinak ez ditugula lantzen da. EMMn esaterako, ekintza bat diseinatzeko orduan, ekintzako esparru bakoitza talde batek diseinatu zuen, horrela, talde bakoitzak bere aldarrikapen propioak ere ikusaraziko zituela ziurtatzen zen. Gandariasek gaineratzen du, beraz, horien planteamendua ez zela bakarrik ezberdinak zirela onartzea, baizik eta bakoitzari ezberdintasun horietariko bakoitzak nola eragiten zion ikustea, bakoitzari bere zapalkuntza edo ezberdintasun zein bizitza-esperientzia berezi eta bakarra sortuz.

Hori ere, interseksionalitatearen teorian ikusi izan da, garrantzitsua baita ezberdintasun bakoitza, momentu konkretu, espazio jakin eta pertsona bakoitzarengan ezagutzea, ezberdin eragin eta sortzen baita aldagaiak aldatuz. Horrela, hizkuntzak, antolatze moduak, batzeko ordutegiak, bakoitzaren lan-baldintzek eta abarrek kideengan nola eragiten duten kontuan hartu behar da. Izan ere, horrek, opresio eta botere-harreman berriak sor baititzake eta, beraz, ez da erraza dibertsitatearen lanketa (eragile guztietan gertatzen den fenomenoa izanik) praktikara eramatea. Horrela, aipatzen du, beraz, ez dela nahikoa zapalkuntza-talde berean egotearekin, talde hori ere ezberdinen artean sortua izango baita, eta asimetria eta botere-harremanak egongo dira, guztiek pairatzen duten zapalkuntza eta pertsonalki bakoitzak bizi dituen beste hainbaten interseksioz sortuak. Ezinbestekoa ikusten du, beraz, horri, behar beste denbora, esfortzu eta sormen dedikatzea, hala, egoera horiek irauli ahal izango dituzten baliabideak sortu eta egunerokotasunean sortzen diren botere-harreman eta asimetriak bertan ere ager ez daitezen.

Transgredir en la retórica de las diferencias significa ir más allá de la identificación y enumeración de las diferencias, visibilizando las desigualdades materiales que existen entre nosotras y que generan diferentes posiciones de poder y privilegio (Gandarias, 2016: 376).

Gandariasek aipatutako praktika horrek herri-ekimeneen botere-harremanen erronkari zuzen-zuzenean ekarpena egin diezaiokeela ikusten da. Izan ere, kideen artean dauden ezberdintasunak praktikan eta militantziaren erdian, arduratik eta ez erru-sentimendutik, kokatzea bera baita, zerbait eraldatzailea, dio Gandariasek.

Hau guztia interseksionalitatearen ikuspegiarekin sortzen da eta herri-ekimeneen erronken esparrura ekarrita, zera esan daiteke: ezinbestekoa da kolektibo bateko kideek beste kide batzuekiko pribilegiadun kokapena onartzea, beste dominazio-sistema batzuekiko zapalduak direla ezabatu gabe. Pribilegioa eta opresioa era berean eta aldebereotasunean aritu daitezkeela konturatzea garrantzitsua da, baita herri-ekimeneetan sortzen diren botere-harremanak iraultzeko gakoa ere.

Haren planteamenduaren hirugarren praktika desakordioak akordatzea da. Praktika horren bidez, kolektibo barnean gertatzen diren eztabaiden erdigunean kideen artean sortzen diren ezberdintasunak kokatzen dira. Banatzen gaituenaren

inguruan berba egiteko beldurra galtzea planteatzen du Gandariasek, kasu honetan, ikuspuntu ezberdinak azalduz eta bata besteari entzunez. Bere ikerketaren arabera, ezberdintasunez hitz egiteak elkartu egiten du, ez adostasuna lortzen delako, baizik eta ezberdintasunean ere, elkarren arteko onarpen eta errespetua handitzea lortzen delako. Horrela, aipatzen dute helburua ez dela ezberdintasun horiek zuzentzea, ezberdintasun horiek aukera bilakatzea baizik, norbere pentsamendu automatikoak eta jada ezarriak datozen normatiboak zalantzan jarriz. Bide batez, ezezaguna edo ezberdina den pertsonaren aurrean irekitzen da norbera, eta hori mehatxu bezala ikustetik aukera bezala ikustera pasa daiteke. Gaineratzen dute, honenbestez, praktika horrek ez dituela soilik distantzia fisikoak gutxitzen, baita arrazional, emozional eta ideologikoak ere, ezberdintasunak aurki daitezkeen truke-espazioen sorrerarako aukera emanez.

Aurrekoen modu berean, ezberdintasunak ezagutarazteak herri-ekimenen asimetriak edo botere-harremanak gutxitzeko erronkari ekarpena egin diezaiokeela ikusten da. Banatzen gaituzten edozein sentimendu, postura ideologikoren inguruan hitz egiteak beti areagotzen baitu norbere ezagutza, baita bestearena ulertzeko gaitasuna ere, eta horrek, asimetriaren eta botere-harremanen identifikazioan lagundu dezake.

Azken hausnarketak: herri-ekimenak feminismoz elikatuz

Herri-ekimenez, bizi garen gizarte honetan, duten garrantzia berretsi da. Ezinbestekoa da zapalkuntzei eta dominazioei erresistentzia egingo dien gizarte antolatu eta artikulatu bat edukitzea. Sistema ondo lotua eta prestatua dago gutariko bakoitza bere engranajearen sartu eta bere inertzia eta praktikak barneratzeko. Herri-ekimenen eta askapenaren alde lan egiten duten hamaika mugimendu ezagutzen ditugu eta horien lana ezinbestekoa da: lehenik, aldarri egiteko, gure eskubide eta praktikak aldarrikatzeko; bigarrenik, aldaketa egiten saiatzeko, beste aukera eta alternatiba batzuk posible direla erakusteko, eta, azkenik, jendearen kontzientzietan eragin eta antihegemonikoa den pentsamendu kritikoa bat sortzeko bideak eraikitzeak. Botere politikoa lortu eta aldaketan eragin ahal izateko, erreminta bakarra, mobilizazioa eta jendearen antolakuntza da. Horretarako, ordea, jarrera proaktiboa behar da, ezin da itxaroten egon, eta guztiontzako duina eta justua den gizarte bat lortu arte egin behar da lan.

Sistema bera ezaugarritzen duten ideologia eta inertzia horiek hain barneratuta daudenez, maiz, aldaketan eta borroketan ere, gu zapaltzeko erabiltzen dituzten modu zein erremintak erabiltzen dira. Aldaketa bat gauzatu nahi bada, dagoena gustatzen ez delako da, kaltea eragiten duelako eta ez duelako pertsona askeak egon daitezkeen aukerarik ematen. Beraz, ezin da zapaltzen gaituzten praktiken logika berak erreproduzitzeko, horrela eginez gero, beti egongo baita zure praktikarekin zapaltzen duzun norbait. Praktika feministak, beste gauza batzuen artean, mugimenduen barnean dauden aniztasunei eraginez, erakutsi du zapaltzaile eta zapaldu era berean izan daitekeela eta momentu batetik bestera hori alda daitekeela. Erraza ez den arren, lana hor dago eta argi egon beharra dago, aniztasunetik guztiontzat askatasuna bermatuko duten praktika komunak eraikitzeak.

Maila teorikoan ulertzen den hau praktikara eramateko zailtasuna dago. Esaterako, argia da, azken hamarkadetan antolakunde eta kolektiboen aurrean, borroka eta aldarri feministak hartu duen indarra, kasu honetan, Euskal Herrian. Arestian, lehen lerroan ez zegoen aldarria izatetik, hamaika erakundetan horrela izatera pasa da, baina orduan agertzen da arazoa. Ez da samurra esatetik ekitera pasatzeko jauzi hori ematea. Horrelako praktika askatzaileak eramatean, kasu honetan feminismoarenari buruz ari gara, baina guztiontzat askatzailea den beste edozein ere aurrera eramatean, bere baitan dauden pertsonen artean, batzuetan pribilegiatuak daudela onartzea dago. Pribilegiatuak garelako kontzientzia hartzea eta horiei uko egitea ez da erraza izaten, ezta hori gauzatzeko mekanismoak topatzea ere. Hor dago, beraz, teoriatik praktikara pasatzearen zailtasuna, baina lan honetan aipatu diren esperientzien bidez, hori ezinezkoa ez dela erakutsi da eta, beraz, horretan buru-belarri lanean jarraitu behar dela berresten da.

Horri guztiari jarraiki, autore feministen lanak irakurri ostean, norberak bere esparru, praktika edo kolektiboaren barne mailan (txikia bezala ezagutzen den ingurunean) praktika askatzaileak gauzatea jada jarrera eta ekintza iraultzailea egitea da. Askotan, gizartean aldaketa gauzatzearen alde lanean aritzen den jendeak lanketa handiak nahi izaten ditu, lehen momentutik ingurunean eragiten dutenak, eta praktika horiek testuinguru zabalean hedatzea bilatzen da. Hori ez da erraza eta askotan esanarekin eta aldarri hutsarekin ez da lortzen jendea halako praktikara batzea. Gauzak horrela, prozesuan jarri behar da indarra, prozesuari berari eta kolektiboaren barnean gertatzen denari erreparatu behar zaio, kanpoan dagoenari begia kendu gabe, baina gurean indarrak jarritz. Horrela, egunerokotasunean, praktika txikiak baina askatzaileak gauzaten badira, iraultza egiten ariko gara. Gustatzen ez dena aldatzeko, lehenik eta behin, kritikatzin dugun sistemaren beraren parte garela ikusi behar da. Horren zirrikituak aurkitu, horietan etengabeko lana egin eta arrakalak hedatzen saiatu, haien azalera eta okupatzen duten espazioa handituz.

Horrela lortuko da erakartzea eta beste mundu bat posible dela erakustea, baina iraultza, praktika txikietatik hasten dela onartzea ezinbestekoa da horretarako; izan ere, esparru txikian lanketa on bat egiteak testuinguruan uste baino eragin handiagoa du, egingarriak diren beste ekintza asko alboratu gabe, noski.

Aipatutako hau guztia gauzatzeko, feminismoa, bere teoriak eta praktikak, nahitaezkoak dira. Feminismoak askotarikoak dira, eta bakoitzak bere erara ulertzen eta bizitzen dituen arren, guztiak ados daude erro berdin bat iraultzean. Esparru ezberdinetatik egiten dute lan, bakoitzak bere zapalkuntza-loturak topatzen ditu, baina elkarren artean ulertzeak asko aportatzen du, benetako iraultza bat aurrera eramateko orduan.

Feminismoa pentsamendu, praktika eta ideologia kontra-hegemonikoa eta askatzailea da, ez ditu dominazioak onartzen. Siernaren (Bilgune Feminista, Ernai eta Ipar Hegoa, 2016:4-5) hitzak gogora ekarriz, marjinetan aurkitzen diren pertsonak erdigunera ekartzea ezinbestekoa da feminismoarentzat. Are gehiago aipatzen du, erdigunerik ez egotea litzatekeela helburua.

Lan honetan ikusi bezala, esperientzia ezberdin ugari bizi izan ditu feminismoak bere historian zehar. Horietatik ikastea, beraz, ezinbestekoa da eta berezko dituen erremintak zabaltzea garrantzitsua. Batetik, dominazioak ulertu, ezagutu eta iraultzeko eran, eta, bestetik, kapitala-bizitza gatazkaren planteamenduan. Hau da, bizitzaren izaera interdependente eta zaurgarriak bizitzaren birsortze-prozesuak gure lehentasunen erdigunean kokatzera eta zaintzera eramaten gaitu ezinbestean, eta, berriz, kapitalaren metaketa erdigunean jartzeak bizitzaren birsortze-prozesuak erasotzen ditu.

Herrigintzak, herriak, komunitateak... antolatzeko dituen formetan hainbat ezaugarri eta berezko logika propioak ditu. Logika horiek, estatuarenak edo merkatuarenak ez bezala, bizitza erdigunean jartzearen planteamendutik gertu daude. Elkartasunak, elkarrekintzak edo kooperazioak bizitzarekin eta gure artean zaintzearekin dute zerikusia, eta hori aurrera eramateko eta praktika horiek martxan jartzeko, feminismoari entzutea bezalakorik ez dago.

Bibliografía

- Ajangiz, R. eta Barcena, I. (2001): «Euskal Herriko gizarte mugimenduak», *Giza eskubideei buruzko koadernoak*, 14, 1-57.
- Apalategi, J. (1999): *Psicosociología de los movimientos asociativos Vascos: Sus representaciones sociales*, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, Lizarra.
- Bilgune Feminista, Ernai eta Ipar Hegoa (2016): *Para que no sea un oasis. Reflexionando con Angela Davis*, Ipar Hegoa Fundazioa, Bilbo.
- Collins, P. (2000): *Pensamiento feminista Negro: El conocimiento, la conciencia y la política de empoderamiento*, Routledge, New York.
- Cruells, M. (2012): «La interseccionalidad entre las luchas por la igualdad en el 15M; avances destacados», *Viento Sur*, 123, 54-60.
- Dañobeitia, O. eta Martinez, Z. (2015): *Herri-gintza: Demokratizazio eta boteretzeko prozesuak. Ikusmiran egoeraren azterketa, 2. Eranskina*, Ipar Hegoa Fundazioa, Bilbo.
- Davis, A. (2016): *Askatasuna, etengabeko borroka bat. Ferguson, Palestina eta mugimendu baterako oinarriak*, Katakarak, Iruñea.
- Epelde, E. ; Aranguren, M. eta Retolaza, I. (2015): *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko mugimendu feministaren kronika bat*, Emagin, Nafarroa.
- Gandarias, I. (2016): «De la unidad a lo común: hacia una articulación feminista de las diferencias. La experiencia de la plataforma de la Marcha Mundial de Mujeres de euskal Herria», *Universitas humanística*, 85, 361-387.
- Haraway, D.J. (1991): *Simians, Cyborgs and Women: The reinvention of nature*, Free Association Books, Londres.
- Herrero, Y. (2013): «Miradas ecofeministas para transitar a u mundo justo y sostenible», *Revista de economía crítica*, 16, 278-307.
- Joxemi Zumalabe Fundazioa (2012). *Herri mugimenduak eta militantzia ereduak. UEU 40. udako ikastaroak*, Joxemi Zumalabe, Eibar.
- , (2014): *Dabilen harriari goroldiorik ez, militantziaz eta horizontaltasunaz hausnartzen*, Joxemi Zumalabe, Donostia.
- Martinez, J. (2017): «Exclusión, profundización democrática e interseccionalidad», *Investigaciones feministas: papeles de estudios de mujeres, feministas y de género*, 8, 1, 53-71.

- Martinez, Z.; Casado, B. eta Ibarra P. (2012): «Movimientos sociales y procesos emancipadores», *Cuadernos de trabajo (Hegoa)*, 57, 1-60.
- Martinez, Z. eta Casado, B. (2013): «Acerca de opresiones, luchas y resistencias: movimientos sociales y procesos emancipadores», *Cuadernos de Trabajo (Hegoa)*, 60, 1-68.
- Martinez, Z. (2014): «Botere politikoa eta herri ekimena indartzeko prozesuak», *Jakin*, 203, 11-30.
- Rubio, M^a J. eta Varas, J. (2004): *El análisis de la realidad en la intervención social. Metodos y técnicas de investigación*, Editorial CCS, Madrid.
- Perez-Orozco, A. (2015): «La sostenibilidad de la vida en el centro... ¿Y eso que significa?», in L. Mora eta J. Escribano, *La ecología del trabajo: El trabajo que sostiene la vida*, Bomarzo, Albacete, 71-100.
- Platero, R.L. (2014): «Metáforas y articulaciones para una pedagogía crítica sobre la interseccionalidad», *Cuadernos de Psicología*, 16, 1, 55-72.
- Viveros, M. (2016): «La interseccionalidad: una aproximación situada a la dominación», *Debate feminista*, 52, 1-17.

